



KULTURA ETA TURISMOA

Laburpen exekutiboa



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Laburpen Exekutiboa

Azterlan honek, kulturaren eta turismoaren arteko harremanaren azterketara bideratua egonik, bi alderdi uztartzen ditu, alde batetik estatistiken bidez lortzen den begirada enpirikoa, eta bestaldetik kultura-turismoaren kontzeptuaren beraren inguruko gogoeta, bai eta turismoaren eta kulturaren arteko norabidebiko harremanaren inguruan dauden erronken ingurukoa ere. Azterlana hiru bloketan egituratzen da: lehenak turismoak EAEn bizi duen egoera testuinguruan kokatzen du, bigarrenak kultura- eta sormen-turismoaren gakoak aztertzen ditu eta, hirugarrenak sektoreak gaur egun bizi dituen estrategien eta erronken analisia hartzen du aztergai.

Turismoa da Espaniako eta Euskadiko jarduera ekonomikoaren sektore nagusietako bat, izan ere % 6,4ko ekarpena egin zion BPGari (2019an) eta Gizarte Segurantzako afiliazio guztien % 11 bildu zuen. Euskal turismo-eredua bereizten duten ezaugarrien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

<p>Turismoa jarduera ekonomikoaren barruan oso sektore garrantzitsua da eta bere onera itzuli da pandemiaren ondoren.</p>	<p>Turistek Euskadi batez ere aisialdiagatik bisitatzen dute (guztizkoaren arabera % 89, 2022an). Nolabaiteko oreka dago turismo nazionalaren eta nazioartekoaren artean. Batezbesteko adina 47 urtekoa da eta batez ere bikoteka bidaiatzen du.</p>	<p>Turisten tipologiaren artean aniztasun handia dago, guztiak ere gurutzatutako motibazioak asetzeko moduko eskaintza aberats eta askotariko batek.</p>
<p>Jarduerei dagokienez honako hauek dira nabarmentzen direnak: herrietako paseoak, gune historikoetarako bisitaldiak, hondartzetarako bisitaldiak, ondarea, museoak eta hiri-parkeak.</p>	<p>Gastronomia da faktore bereizle nagusietako bat.</p>	<p>Hiriek zentraltasun-paper argia daukate.</p> <p>Esperientziaren balorazioa positiboa da kasuen % 96an.</p>

Garapen ekonomikoko funtsezko sektore gisa, turismoari lotutako estrategia anitz landu dira, eta horien bidez kulturak bere gain hartu behar duen zeregin potentziala aztertu da. Zentzu horretan, nabarmentzekoa **da kulturak eredu turistiko etiko eta inteligentea eraikitzerakoan zeregin nabarmena duela**, baina hori maiz ez da islatuta ikusten bultzada eta plangintza turistikoko estrategia zehatzetan. Egindako azterketan agerian geratzen da kulturak hainbat lerrotan daukan ahalmena edo potentziala:

- 1.** Kulturak aberastu egiten du eskaintza turistikoa bereizitasuna eskainiz eta eskaintza turistikoa pertsonalizatzeko ahalmena dauka, esperientzia esanguratsu eta bakarren aldeko apustua eginez.
- 2.** Kulturak turismoaren eta tokiko komunitatearen arteko harremana hobetzeko berezko potentziala dauka, elkarrekiko atzeraelikadurazko harremanak indartuz.
- 3.** Kulturaren eta jasangarritasunaren artean dagoen loturak zera eragiten du, turismoaren garapenak eredu turistikoaren eraldaketa lortzen laguntzea. Horrela, ekonomiaren, ingurumenaren, gizartearen eta kulturaren arloetan jasangarria den eredu baterantz joan gaitzke.
- 4.** Kulturak hobetu egiten du turismo-sektorearen lehiakortasuna, eskaintza zabala eta urtarokotasunik gabea sortzen lagunduz.
- 5.** Kulturak turismoa lurraldean hobeto banatzen laguntzen du.

Txostenean egin den lehen azterketa horretatik zera ondorioztatzen da, turismoaren eta kulturaren artean harreman konplexua dagoela. Horregatik da garrantzitsua kultura- eta sormen-turismoa definitzea gogoetetan aurrera egiteko.

Turismoaren Mundu Erakundeak honela definitzen du **kultura-turismoa**: turismo-jarduera mota bat da non bisitariaren motibazio nagusia zera den, turismo-helmuga bateko produktu eta erakargarri ukigarri eta ukiezinak ikastea, aurkitzea, esperimentatzea eta kontsumitzea.

Greg Richards eta Crispin Raymond (2000) izan ziren sormenezko turismoa definitzen lehenak, honela, hain zuzen ere: «egonaldiaren lekuak bereizgarri dituen ikastaroetan edo esperientzietan aktiboki parte hartuz bidaiariei beren sormen-potentziala garatzeko aukera ematen dien» turismoa. Zentzu horretan, batez ere esperientzia bereizien bilaketan zentratzen den turismoa da. Turistak aktiboki parte hartzen du helmugarekin lotutako sormen-esperientzietan.

Turismoaren eta kulturaren arteko harremanak bi sektoreak indartzen ditu, bai eskaeraren aldetik (bisitariena edo herritarrena) eta baita eskaintzaren aldetik ere (negozio-aukera).

Turismo-sektorean ikusten ari diren eboluzioa eta aldaketak zerbitzuen eta esperientzien eskarian izandako aldaketekin erlazionatuta daude. Pandemia eta teknologia berrien bilakaera dira aldaketa hauek bizkortzen gehien lagundu duten testuinguru-faktoreetako bi.

Gaur egun, turistek esperientzia osoak, paregabeak eta gero eta jasangarriagoak, bidaiak pertsonalizatuak eta neurrirakoak egitea ahalbidetzen dietenak, eskatzen dituzte. Testuinguru berri honetan, kulturaren eremuak asko dauka eskaintzeko, baldintza berri hauei erantzuteko esperientziak eskaintzea ahalbidetzen baitu. Egungo turismo-eskariaren joera nagusietako batzuk hauek dira:

Esperientzia paregabeen bilaketa. Kultura- eta sormen-turismoa oso erlazionatuta dago pertsonifikazioaren eta singultasunaren edo bereizitasunaren bilaketarekin. Tokiko esperientziak joera turistiko berri bihurtzen ari dira.

Ingurunearekiko konexioa. Ikusten den joeretako bat zera da, foku turistiko handiez bestelako helmugan bilaketa, bai eta produktu bakarren bilaketa ere, bisitariari lekuen benekotasunarekin konektatzeko aukera emango diena.

Jendetza-turismotik urruntzea. Bidaiariak helmugekin sakonago konektatzeko duten borondateari erantzuten diona. *Slow travel* izenekoaren gisako modalitateek naturalagoa, hurbilagoa eta espontaneoagoa den errealitatearekin konektatzea bilatzen dute.

Hiri-turismoa eta landa-turismoa kontrajarrita. Turismo-helmugan artean badira bi joera ondo bereiziak: hiri-turismoaren gorakada eta landa-turismoaren errebindikazioa, turismo guztiz konbentzionalaren alternatiba gisa.

Malgutasuna. Malgutasunaren eskaera da Covidaren pandemiak zuzenean gehien baldintzatutako eskaera-joeretako bat.

Jasangarritasuna. Jasangarritasuna da bai turisten eskaera eta baita tokiko komunitateena ere. Izan ere, turismo-jarduera hurbileko ondarea eta ingurua iraunarazteko tresna gisa ikusten baitute.

Eskaintza turistikoa eskariaren eskakizunak eta sektorearen beharrak oinarri hartuta antolatzen da eta azkar egokitzen ari da turismo-industriari eragiten dioten aldaketetara. Eskaeran sortzen diren aldaketek zera eragiten dute, kulturarekin eta sormenarekin erlazionatutako produktu turistikoen gorakada, kultura-izaerako ibilbideak edo ibilaldiak edo *painting holidays* izenekoak. Gainera, elkartzen diren agente- eta helmuga-sareen antolaketa eta sorkuntza ere zabaltzen ari da. Hala, elkartu egiten dira intereseko nitxo edo gune jakin batean eskaintza bateratua egiteko (hala nola, hiri kreatiboaren sarea edo hotel gastronomiko edo historikoen sarea).

Eskaintza turistikoari dagokionez, sektorea garapen jasangarri globaleko irizpideen bidez eraldatzeko premiak eskaintza deszentralizatu eta urtaro jakinei lotu gabea bultzatzea eragiten du, masen edo jendetzen turismoak inposatzen dituen erronkei erantzuna eman ahal izateko. Adierazi denez, kultura, berez erakargarri bat izateaz gain, helmugaren gako-ardatz bereizgarria da, turismoaren sektorearen jasangarritasunerako hain garrantzitsuak diren helburuak lortzen laguntzen duena: **deszentralizazioa, bereiztea, singularitasuna eta urtarokotasunik eza.**

Turismo-sektoreak ekonomia, gizartea eta kultura garatzeko sortutako aukerez gain, badaude aurre egin behar dien erronka garrantzitsuak. Testuinguruaren aldetik, pandemiaren etorrerak agerian utzi zuen munduko ekonomia batzuek sektorearekiko duten dependentzia, eta aukera on bat eskaini zuen biplanteatzeko eta aldaketarako premiei buruzko gogoeta egiteko. Sektorearen erronka nagusien artean nabarmendu daitezke:

- **Masifikazioaren kontrola**, masifikazioa biztanleen bizi-kalitatearen eta lurraldeko kemenaren, nortasunaren eta kulturaren aurkakoa baita.
- **Inpaktu ekonomikoaren eta sozialaren arteko desoreka.** Desoreka horren kontrolak jarduera turistikoaren esternalizazioak murriztea ahalbidetu behar du, bai eta gizarte-baldintzatzaileak hobetu ere.
- **Urtarokotasunaren konpentsazioa**, zeinak eskaera turistikoa garai jakin batzuetan metatzea eragiten baitu, eta eragin negatiboak dauzkan hainbat arlotan: diru-sarreraren aldaketa, lan-prekarietatea, ingurumen-narriadura, etab.
- **Egungo ondareari balioa ematea**, eskaintza berriak esploratzeko aukerak ematen baititu, bai arlo turistikoan eta baita kulturaren arloan ere.
- **Errelato bat eraikitzea**, herrialde eta komunitate gisa definizio propio bat sortzen laguntzeko, estrategia eta produktu turistiko konkretuenetara lekualdatzeko aukera emango duena, haiek errelato horrekin kutsatuz.

Turismoaren sektoreak gaur egun aurrez aurre dauzkan erronkez jabetuta, erronka horiek gainditzeko **estrategiak** sortu behar dira. Horretarako, txostenaren amaieran sektore turistikoaren garapenean giltzarriak diren lau eremu estrategikotan sakontzen da. Kultura- eta sormen-sektorean modu positiboan elkarreragiten duten eremuak dira eta egungo erronkei erantzun ahal izatea bilatzen da, horien artean jasangarritasuna nabarmenduz.

Kulturaren eta sormenaren sektore guztia barne hartzea

Turismo kulturalerako estrategiak kulturaren eta sormenaren industrietarantz zabaltzeak bidea ematen du sektorean sortutako behar eta eskari berriei erantzuteko, helmugaren erakarpina eta diferentziazioa sustatu eta sendotzeko, zonako eskaintza turistikoa handitzeko, kultura-sektorearen eta turismo-sektorearen arteko sinergiak indartzeko, ekonomia dinamizatzeko, toki-komunitatearekiko bizikidetzak errazteko, kultura-dibertsitatearekiko errespetua sustatzeko, etab.

Dibertsifikazio turistikoa bultzatzea

Estrategia hauek monolaborantzaren aurka joatea dakarte, erakargarri agerikoenetatik haratago dagoen eskaintza bultzatuz. Masifikazio turistikoaren aurka jardutea ahalbidetzen dute, bai eta masen turismoaren ondorioz gaur egungo ondareak jasan dezakeen degradaziotik babestea eta, gainera, inguruko beste erakargarri batzuk zabaltzea ere.

Kultura-aniztasuna sustatzea

Turismoa bultzatzeko estrategiak jasangarriak izateko, tartean dauden populazioen bizi-kalitatea hobetzeko eta lekuaren berezko balioak kontserbatzeko xedea eduki behar dute eta kultura-aniztasuna aberastasun gisa errespetatu behar dute.

Toki-komunitatearen eta bisitarien artean harreman onak sortzea

Turistak hiriko aldi baterako herritartzat jotzen dituzten eta egoiliarren eta bidaiarien arteko bizikidetzaz errazten duten politikak eta estrategiak onartzea garrantzitsua da turismoari buruzko iritzi publiko positiboa, hirian baterako garapena ahalbidetzen duena, sustatzeko.

Aurkeztutako erronkak eta lerro estrategikoak zeharka gurutzatzen dituen ildo nagusia, zalantzarik gabe, **jasangarritasuna** da, eta arreta berezia merezi du. TMEn arabera, honako hau da turismo jasagarria: egungo eta etorkizuneko ondorio ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan hartzen dituen, bisitarien, industriaren, ingurunearen eta anfitrioi-komunitateen beharrak betetzeko. Turismoaren sektorearen jasagarritasuna bermatzeak zera eskatzen du, garapen turistikoren alderdi ingurumenekoaren, ekonomikoaren eta soziokulturalaren arteko oreka lortzea, eta horrek bereziki honako hau eskatzen du:

1. Ingurumen-baliabideak ondo erabiltzea, sektorea garatzeko funtsezko elementua baitira.
2. Anfitrioi-komunitateen egiazkotasun soziokulturala errespetatzea, ondare materiala eta immateriala babesten lagunduz eta kultura arteko tolerantzia eta dibertsitatearekiko errespetua sustatuz.
3. Jarduera ekonomikoek dakartzaten onura sozioekonomikoak eragile guztien artean ondo banatzen direla bermatzea, bai turismo-sektorean zuzenean parte hartzen dutenen artean, bai toki-komunitatean oro har.

Sintesi gisa, kulturaren eta turismoaren arteko loturaren inguruko begirada zabaltzen lagundu dezaketen elementu batzuk azpimarratuko ditugu.

Euskadiko kultura propioak balio kultural eta turistiko handiko **nortasuna** ematen du.

Euska Autonomia Erkidegoak garapen turistikorako **aktibo kultural** sorta zabala dauka lurralde txiki batean, eta horrek proposamen alkartuak diseinatzea errazten du.

Zerbitzuen kalitateak, irisgarritasunak, bizi-mailak, kemenak, kultura-eskaintzak, hirien tamainak... Euskadiri **abantaila konparatibo bat** ematen diote.

Jasangarritasuna-etika-kultura zeharkako begiradak izan behar du egungo edozein herrialde-estrategiaren ardatza.

